



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2020KO UZTAILAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko uztailaren 31ean, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Santos Etxegia, M Mar Ansorena, Ricardo Arangoa, Olatz Dorai eta Xabier Azpiroz.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Julen Beunza

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

#### **GAI ZERRENDA**

##### **1.-Aurreko batzarreko akta onartzea.**

Emaitzez bidalitako ekainaren 30eko batzarreko akta onartzen dute bildutakoek aho batez.

##### **2.-Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2020/30 alkate ebazpena ekainaren 23koa Marta Catalina Garciari zuzendua onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 6196CHP matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 60,05 erokoa izanen delarik

-2020/31 alkate ebazpena uztailaren 1ekoa Juan Echeverriari zuzendua onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea

NA4875AM matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 28,15 eurokoa izanen delarik.

- 2020/32 alkate ebazpena uztailaren 1ekoa Martin Alsuari zuzendua Obra baimena emanaz Jaunsaratsko 5. Poligonoko 86. Lursailean dagoen etxebizitzan leihoak aldatzeko obraren aurrekontua 8541 eurokoa da.

-2020/33 alkate ebazpena uztailaren 1ekoa onartuz Jaime Perezek egindako eskaera M2540VZ matrikuladun autoaren klasifikazio aldatzeko eta trafikotik bidalitako informazioaren arabera karga 3500 kg-tik 2056 kg-ra pasatu eta hortaz kobratu beharreko tasa 200,18 eurotik 140,10 eurora pasatzen da.

- 2020/34 alkate ebazpena uztailaren 13koa Francisco Aizpuruari zuzendua onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA4833AZ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 14,07 eurokoa izanen delarik.

2020/35 alkate ebazpena uztailaren 13koa Iribarren Etxarri anaiek obra baimena emanaz Berueteko 12. Poligonoko 23. Lursailean dagoen eraikina bi etxebizitzetarako egokitzeko, ikusita Etxebizitza Ataleko txostena eta udal arkitektoaren 20/389. txostena obraren aurrekontua 207.206,92 eurokoa izanik.

-2020/36 alkate ebazpena uztailaren 15ekoa Marta Huarteri zuzendua .- Baimena ematea Marta Huarte Estebanek egindako eskaera Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko uztailaren 17 eta 18an. 10etatik arratsaldeko 20etara EITB-ek antolatutako tailerra emateko.

-2020/37 alkate ebazpena uztailaren 15ekoa Baimena emanaz Cristina De la Torreri, Aizarotzko gazteen izenean egindako eskaera ikusiz, gazteek elkartzeko, Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko, bera izanik talde horren arduraduna Marta Huarte Estebanekin batera.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

### **3.- Bake epailearen izendapena.**

Alkateak azaltzen du bake epailearen agintaldia bukatzeaz zegoenez, tramitazioari hasiera eman zitzean botere judizialeko 1985/6 Lege Organikoa jarraituz, eta apirilaren 6ko batzarrean hutsik geldituko zen bake epailearen postua argitaratu zen. NAO n iragarkia argitaratu eta 15 eguneko epean pertsona bakarra aurkeztu zen, egun dagoen bake epailea, Amaia Olague. Aipatutako lege organikoaren 303 artikularen arabera aurkeztutakoak baldintzak betetzen ditu.

Hortaz bildutakoek, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- Amaia Olague Ilarregui 72689615R NAN zenbakiduna, adinez nagusia, masajista lanbidez eta Jaunsaratsko Asuncion kaleko 10.zenbakian helbideratua, izendatzea Basaburuko bake epaile bezala 2020-2024 agintaldirako.

#### **4.-Iharduera baimena Berueteko 11. Poligonoko 504. Lursailean txerri ustiapena jartzeko**

Alkateak adierazten du, aurretik NGak ezezko txostena egin zuela lursail horretan beste ustiapen bat altan zegoelako, proiektu berri honen sustatzaileak aipatutako ustiapenaren baja aurkeztu zuen NGan eta hortaz orain baiezko txostena egin du baina kontutan hartuta jarri ziren alegazioak aztertzeke gelditu zirela NGko txostena ezezkoa zelako orain aztertu dira.

Alkateak azaltzen du, hirigintza batzordean aztertu zirela proiektuaren inguruan jarritako bi alegazioak eta hauen inguruan udal arkitektoak txostena oinarri hartuz.

Lehenengo alegazioa Berueteko kontzejuak jarri du, aipatuz zonaldea hornitzen duen ur deposituak 15 m<sup>3</sup> dituela eta ustiapen berriak 4.10 m<sup>3</sup>ko beharrak, zonaldean ere beste etxebizitza eta ustiapen daudela aipatzen du, ardura agertzen du kontzejuak, ur hornidura bermatuko ote den.

Bigarren alegazioa ustiapena jarri behar den lursailaren bizilagunak jartzen du, adieraziz berak landa etxe bat eta jatetxea dituela eta usainak iritsiko direla argudiatzen du bere alegazioan eta kontzejuak bezala ur hornidura arazoak egonen direla. Ur horniduraz gain argi indarraren hornidura eskasa dela adierazten du.

Bi alegazioen inguruan udal arkitektoak adierazten du bere txostenean, ez duela arazorik ikusten ur horniduraren bermatzearen inguruan. eta hau konpontzeko proposamena izango lirateke gune publikoak ura isteko giltza bar jartzea eskatzea eta hortaz ur gutxi dagoenean etxebizitzaren ur zerbitzua bermatzen da. Usaiaren arazoa ez dela justifikatzen adierazten du, gutxieneko distantziak bermatzen dira bai herrira eta bai ondoko bizitzetara eta NGak eskatu beharko dio ingurugiro afekzioekin lotutako neurriak hartzea.

Orain bildutakoek udal arkitektoaren txostena ikusiz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**-Ez onartzea Berueteko kontzejuak eta Ignacio Soralucek jarritako alegazioak udal arkitektoak egindako 20/442 txostenean oinarrituz, baina kontutan hartzea uraren hornidurarekin lotuta, sustatzaileari eskatzea gune publikoan ur hornidura isteko giltza jartzea. Erabaki hau bai Berueteko kontzejuari bai Ignacio Soraluceari jakinarazi.**

**-Erabaki hau eta alegazioak NGra bidaltzea, baiezko txostenean kontutan hartu ditzaten.**

#### **5.- Udal planaren berrikuspena. Hasierako onespina.**

Alkateak azaltzen du udal plana berritzeko EMOT proiektua behin betikoz onartu zen eta jada udal planaren dokumentua prestatu du arkitektoak. Aldez aurretik bilerak egin dira kontzejuetan aurkezteko herri bakoitzaren garapena.

2017/1 Foru Legearen 71. artikulua arautzen du:

“Plana idazten amaituta, udalak hasierako onespina emanen dio, eta ukitutako kontzejuen eta udala sartua dagoen mankomunitateen esku utziko du, txostena egin dezaten, bakoitzak planeamenduaren eragina jasaten duten beren zerbitzuei buruz. Halaber, jendaurrean jarriko du, hilabetez gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri eta Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan iragarki bat argitaratuz. Udalak, gainera, haren zabalkundea egin beharko du, bai eta herritarren partaidetza ahalbidetu ere, partaidetza-planak xedatutakoari jarraikiz.

Jendaurreko informazioaz batera, hasiera batez onetsitako plana lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari igorriko zaio, Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumeneko gaiei buruzko txostenak egin daitezten.”

Aipatutako epe horretan arkitektoak hitzorduen bitartez udal planari alegazioak jarri nahi dioten bizilagunei aholkularitza emanen die.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**-Hasiera batez onartzea Basaburuko udal planaren berrikuspena eta 2017/7 foru legearen 71 artikulua araberako erabaki hau NAOn argitaratua izan dadin agindu 2 hilabeteko epean jende aurrean egon dadin eta NGra bidali dagozkion txostenak eskatuz .**

#### **6.- Iharduera ekonomikoaren gunea sortzeko udal planaren aldaketa. Behin behineko onespina.**

Alkateak adierazten du industrial gunea sortzeko udal planaren testuari aldaketa bat egin zitzaiola eta hortaz berriro jende aurreko alegazio epean egon da. Epe horretan

Dorrea Gaztandegia enpresak alegazio bat jarri du eta honi arkitektoak erantzuna eman.

Alegazioa hiru zutabetan oinarritzen da, industrial gunearen bideragarritasun ekonomikoa, industrial gunearen ingurugiro afekzioa, eta gaztandegia industrial gunean sartzearen inguruan. Arkitektoak erantzuna ematen du bere txostenean aipatuz lehenik, bideragarritasun ekonomikoaren inguruan azterketa egin dela eta bideragarria ikusi aurrera egiten badu proiektuak eta edozein kasutan aurrerago tramitatuko den plan bereziak erantzun zehatzagoa emanen dio arlo ekonomikoari, bigarrenik ingurugiro afekzioen inguruan aipatzen du, Hibaia enpresak egin zuela honen inguruko proiektua eta edozein kasutan NGak emango duela behin betiko onespena eta berak zehaztuko ditu betebeharrak. Bukatzeko adierazten du ezin dela gaztandegia kanpo utzi, sarbidea egiteko bere lurak erabili behar dira, sarbide hau NGarekin adostutako da, udalak egindako aukeretatik bideragarriena zelako.

Bildutakoek erabaki hau hartzen dute aho batez:

**- Ez onartzea Dorrea Gaztandegia enpresak jarritako alegazioa Jose Ignacio Arribas arkitektoak egindako txostenaren arabera eta erabaki hau Dorrea Gaztandegia enpresari helaraztea.**

**-Behin behinekoz onartzea udala planaren aldaketa iharduera ekonomikoen gunea sortzeko eta NGra helaraztea behin betiko onespena emateko**

### **7.- Administrariaren lanpostu osagarria.**

Alkateak azaltzen du, administrariak bere lanpostuaren osagarria baloratzeko eskaera egin zuen ikusita betetzen dituen lanak eta ondoko udalek dituzten plantilla organikoak. Balorazio hau egiteko Talentix enpresarekin harremana lotu zuen udalak eta administrariarekin bilera egin, zehazteko burutzen dituen lanen zerrenda eta hauek idazkariarekin baieztatuz, balorazio txostena prestatu.

Egun C maila dauka mailaren osagarria %12koa da eta lanpostu osagarria 3.54

Balorazio txostenean zehazten da administrari lanpostua C mailaren barrua C2 atalean egonen liratekeela eta hortaz osagarria %15etik %19koa izan beharko lukeela.

ikusiz bildutakoek onartzen dute ondoren zehazten den erabakia hartzea:

**- Onartzea Elena Gaskue Jaunarenak egondako eskaera, Talentiz enpresak egindako C mailako lanpostuaren balorazio onartu eta horren arabera lanpostu osagarria %19koa izatea. Hortaz hurrengo urteko plantilla organikoaren administrari lanpostuak ezaugarri hauek izanen lituzke: %12ko maila osagarria eta %19ko lanpostu osagarria.**

- Erabaki hau eskatzaileari jakinarazi eta Bidera enpresari nominan kontutan hartu dezaten.

### **8.-Mozioak.**

NA 121 Plataformak bidalitako mozioa irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena:

#### **“ GARRAIOA BESTE ERREPIDE ALTERNATIBOETATIK JOATEKO, ERRIOXAKO ET/ IBILGAILU ASTUNEN PROPORZIOA HANDIA DEN ERREPIDE NAZIOALETAN EGIN DUEN ARGUMENTUAK**

N-121A errepidetik eta tuneletik pasatzen den ibilgailu astunen kopurua oso handia da, horrek arrisku nabarmena eragiten du errepideko erabiltzaileentzat eta eskualdeko herritarrentzat.

Tunelak:

Segurtasun neurriak ez dira nahikoak. Almandoz eta Belateko tuneletan lanak egin diren arren, itxiera baino lehenago bezala, kamioi kopurua etengabe igotzen baldin badoa, tunel hauen arrisku maila handituko da.

Tuneletan egindako lanek apenas dute eraginik izan arrisku faktorerik handiena konpontzeko, ibilgailu astunek su hartzea, eta, hori gertatzekotan, bertan dauden pertsonen biziraupena bermatzea (egindako ekintzak ez dira *Gutxieneko segurtasunari buruzko 2004/54 Europako zuzentarauan* zehazten direnak, gobernuak interpretatzen duen bezala).

Suteek sortzen dituzten ke eta gas toxikoak ez badira tunel barrutik behar bezala eta azkar husten, bertan dauden pertsonak arrisku larrian egonen dira, ikusgarritasun faltagatik eta gasek laster batean asfixia eragiten dutelako, beraz, tunelak ahalik eta azkarren hustu behar dira.

Sua itzaltzeko zerbitzuen erantzun azkarrik gabe, 2 tuneletako egungo aireztapen sistema ez da gai ibilgailu astun bateko suteko gasak kanporatzeko, barruan dauden pertsonak kaltetuta atera gabe. Tunel hauek ez dute larrialdi irteerarik erabiltzaileak modu azkar eta seguruan bertatik ateratzeko.

2015ean Belate eta Almandozko tuneletako arrisku analisia egin zen eta zehaztu zen bi tunel hauek azkeneko kategorian sartzen zirela, hau da, **“arrisku handiko tunelak, ez dira segurutzat hartuko eta neurri osagarriak hartu beharko dira segurtasuna handitzeko eta zerbitzua ematen jarraitzeko”**.

Analisiak, oraindik ere, emaitza okerragoak ematen ahal zituen zenbait aspektu astungarri kontuan hartu izan balira, adibidez, ibilgailu astunen suteen edo sute-hasieren maiztasuna, horrelako egoeretan erabiltzaileek hartu beharreko jokabideen berri ematen duten kanpainarik ez izatea, neguan merkantzia arriskutsuen garraioa inolako neurri gehigarririk gabe, edo eguneratutako larrialdi planik ez egotea.

Asko dira egunero tuneletatik pasatzen diren ibilgailu astunak (2.100 kamioi inguru 2014an), ondorioz suteak egon litezke. Analisi horietan sute arriskua gutxitzeko faktore nagusia epe motzean ibilgailu astunen trafikoa gutxitzea zela adierazi zuten.

Irteera edo helmuga N-121A errepidean ez duten ibilgailu astunen desbideratzearen ikerketa eginda (1200 kamioi inguru Nafarroako Gobernuaren estimazio baten arabera), ondorioztatzen da arrisku maila jaitsiko litzatekela, Almandozko tunelean maila onargarri batera eta Belateko tunelean maila onargarri batetik hurbil.

2016ko ekainean 31 udalek Nafarroako Gobernuari eskatu zioten presazko neurriak hartzeko probatuta dagoen arrisku maila jaisteko. Gobernuak ez zuen inolako neurririk hartu, nahiz eta analisi horiek ezagutu,.

Tuneletako arrisku maila hazi da. 2018an, ibilgailu astunen bolumena %50 igo da 2014tik; hau da, 2015ean egindako analisisian baino 1000 kamioi gehiago pasatzen ziren. Adierazle horrek, zalantzarik gabe, txosten horietan estimatzen den arrisku maila handitzen du.

2018ko martxoaren 5etik 9ra, egunero 9000 ibilgailu pasa ziren tuneletatik, horietatik ia 3500 ibilgailu astunak ziren, %40. Estimatzen da ibilgailu astun horien %70, 2500 inguru, nazioarteko ibilbidea egiten dutela; hau da, N-121A errepideko eskualdean ez dute ez irteerarik ezta helmugarik ere.

Larrialdi zerbitzuen eraginkortasun eza eta arriskua. Hurbilen dagoen suhiltzaileen parkea (Ornoz-Mugairin) oso urruti dago tuneletan ibilgailu astun baten sutea itzaltzeko eraginkorra izateko eta ezbeharrean inplikaturik dauden pertsonak erreskatatzeko.

Eraginkortasuna ez da beharko litzatekeena; izan ere, erantzuna emateko denbora ez da egokia, lan hauetarako langileen formazioa ez da beharko litzatekeena eta dituzten ibilgailuak ere ez dira aproposenak.

Suteren bat baldin badago, Belateko Kontrol Zentroak ez du esku-hartzeko edo sua itzaltzeko gaitasunik.

Ondorioz, erabiltzaileak sutean inplikaturik ikusiko dira eta kanpoko laguntza teknikorik gabe, beraz, bere kabuz erabaki beharko dute zer egin babesteko.

Errepidea:

Tuneletan gertatzen den bezala, N-121A bi noranzko errepidea denez, istripuak gertatzeko probabilitatea handiagoa da, errepidea edo tunelak noranzko bakarrekoa denean baino; hau da noranzko bakarrekoko zirkulazioa eta zentzu baten eta bestearen artean bereizketa fisikoa duten errepideak (autopistak edo autobideak).

Istripu larrienak, portzentaje altu batean, N-121A bezalako bi noranzko dituzten errepideetan gertatzen dira, aurrez aurreko talkak egoten direlako. Istripu hauetako gertaerarik latzenak tartean ibilgailu astunak daudenean ematen dira.

Hori argi geratzen da N-121A errepidean.

10 hilabetetan (2017ko apiriletik 2018ko apirilera), 10 pertsona hil ziren, 12 zauritu larri eta beste hainbat arinago zauritu ziren. 10 heriotza horietatik 8tan (%80) aurrez aurreko talkak gertatu ziren eta hildakoak egon diren istripuen %70ean ibilgailu astunak egon dira tartean. Ibilgailu astun hauetako gidariak ere biktima izan dira: 2 hildako eta beste 4 larri zauritu.

Balantze honek, hala ere, ez du N-121A errepidearen egoeraren larritasuna erabat adierazten. Kontuan hartu behar dira artikulatutako ibilgailu astunek izandako beste 6 istripu larri aipatutako epearen azken 4 hilabeteetan: 3 kasutan artazia egin eta irauli dira ibilgailuak, beste 3 kasutan tuneleko ikusgarritasuna galdu zen Belateko tunelean kamioien turbomotoeen matxurak eragindako kearengatik.

Epe berean, A-15 autobidean ez da inolako istripu hilgarririk gertatu eta ez da istripu adierazgarririk egon. Kontuan hartu behar da zirkulazio bolumen handiagoa duela eta noranzko bakarreko errepidea dela, N-121A errepidetik paraleloan doa eta honen alternatiba da.

Ikerketa askok adierazten dute (RAC-Real Automóvil Club, AIPCR-Asociación Mundial de la Carretera, sustapen Ministerioa, Trafiko Zuzendaritza Orokorra eta abar) kamioiak bi noranzko dituzten errepideetatik, autobia edo autopistetara desbideratzea, hildakoen kopurua jaitsiko lukeela.

Arazo honi irtenbidea emateko adibide argi eta arrakastatsuak ere badaude, adibidez N-II-koa Gironan, N-121A errepideko arazo ia berberarekin. Administrazioei inolako koste ekonomikorik ez die suposatu, mugara doazen eta mugatik datozen kamioiak AP-7 autopistatik desbideratzen dituzte. Hildakoen kopurua asko jaitsi da. Bi urteko probaldian (2014-2016) heriotzak 15etik 3ra jaitsi dira.

Adibide hori ez da bakarra, beste zenbait ere badaude, esaterako, N-232 errepidea Errioxan, N-340 Tarragonan, N-240 Lleidan....

Historikoki Nafarroan hauek izan dira istripu hilgarri gehien izan dituzten errepideak: N-121A, N-111 (Iruñea-Tutera) eta N-232 (Tutera-Logroño). Gaur egun, Nafarroan heriotza gehien dagoen errepidea N-121A errepidea da, nahiz eta 66 kilometroko ibilbide motza duen eta hainbat hobekuntza egin diren.

Errepide honetan, azken 25 urteetan 180 heriotza baino gehiago egon dira eta kontaezinak dira zauritutako pertsonak. Bakarrik 1999an eta 2005ean gainditu zen 10 heriotzetako langa eta aurrean ere gainditu da.

Bitartean historikoki hilgarriak izan diren errepideetan heriotza kopurua jaisten ari dira, baina N-121A errepideko heriotza kopurua gehiengo historikoetara bueltatu da.

A15 errepidea bikoiztuta dagoen errepidea da, gaitasun handiagoa du trafikoa hartzeko eta seguruagoa da. Europarekin garraio lotura egiteko diseinatu eta proiektatu zen. A-15 errepidean gero eta kamioi gutxiago ibiltzen da, 2002an egunero 2.500 kamioi ibiltzen ziren eta



2017an 1.400. N-121A errepidean, ordea, kamioi kopurua handitzen doa, 2002an egunero 950 kamioi ibiltzen ziren, gaur egun 3000 (A-15eko datuak Gorosmendi tunelekoak, eta N-121A errepidekoak Belateko tunelekoak).

Krisialdi ekonomikoak eta merkantzien garraioari A-15 eta AP-8an jarri zaizkion gain-kostuek zer ikusi handia dute azken urte hauetan ibilgailu astunek egin duten errepide aldaketan.

N-121A errepidea ibilgailu astunez gainezka dago eta honek errepidearen segurtasunari eta trafiko-jarioari ez dio inolako mesederik egiten. Kamioi gehienek nazioarteko garraioa egiten dute, eta horrek eskualdean eragin ekonomiko gutxi du (salbu, sektore oso konkretu batzuetan, esaterako gasolindegia). Eta eragin ekonomiko hori ez da inola ere konparagarria eta konpentsagarria segurtasun falta eta istripu kopurua handitzearekin.

A-15 errepideko bidesarien gain-kostua da nazioarteko garraioak N-121A errepidea aukeratzeko arrazoi nagusia. Ondorioz, Nafarroako Gobernuari dagokio behar diren neurriak hartzea eta behar diren hitzarmenak egitea N-121A errepideko istripu kopurua jaisteko.

2019 urtearen bukaeran izandako istripuan Azpilkuetako ama eta alaba bizia galdu bazuten, 2020 honetako hasiera ezin makurragoa izan da. Bi istripu berri non gure eskualdeko beste 3 lagun hilik suertatu dira. Bi istripuetan kamioen partehartzea gertatu da. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute mozioa.

## **9.- Batzordeen informazioa.**

### **Gizarte eta Osasun Batzordea. M Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Sukaldaritza tailerra prestatu da haurrei bideratua, abuztuan burutuko da. Adinduekin bilera egin da hurrengo ikasturtera begira iharduerak antolatzeke.

### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Azoka abuztuaren 30ean egingen da Orokietan mendialdeko lehenengo sektorearen garapenaren proiektuaren barruan.

## **10.-Informazio orokorra.**

- Nafarroako Emplegu Zerbitzutik 2020ko langabetuen dirulaguntza onartu dute 1. bi kontratazioetarako.
- Osasun programaren dirulaguntza ere onartu dute emakume eta adinduen programetarako.

## **11.-Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:50 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.